



ILEROKO ALDIZKARI EDERGAÏDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—: || VII Urtea || 1925^oko Otsaila || 74 Zenbakia || :—:

JESUSI ENTZUTEN

« NI NAIZ »

Ego sum, qui loquor tecum
(Joan, IV - 26)



TSEGIÑA eta biotzeko pakea nai badezu, seme, atoz lenbaitlen nere ondora.

Beude or bean, nai badute, istiluzale ta jolasgurak, azalean poza eta barnean negafa besterik ez duten gizon txoroak: utzi mundua mundutafentzat.

Zuk doatsu izan nai zenuke; eta benetako zorionaren jabe nik bakafik egin zaitzaket: nik bakafik det zure atsegin-egafia asetzeko diña atsegin.

Ez nintzan alfezik beñola, atsedeten geld, arako Jakoben putzuko ertz artan, Samari aldetik bafena nebilela, anima galduen atzetik.

Eguerdi ingurua zan. Eguzkiaren beroak easanda, ibiliaz nekatuta, egafiturik, putzu ondoan bakar-bakafik eseri nintzan, ikasleak uritik zer janarekin etofi bitartean.

Ibar mardul eta apain bat neukan afez-aufe, begien gozagafi; Garizim eta Hebel mendiak nere bi alboetara, oropen edefen eta ilunez estaliak:

Jak ob zintzoaren iturria, mendiaren egalpean; eta ofi eskergabe eta saiestuaren oparitegia gain gañeko erpin tontofean.

Baño beste gai bat nerabilen gogoan.

Emakume efukafi baten zai negon antxe eserita; ur bila etofri zedin, eta putzuko urarekin batean animako osasuna eramane zezan.

Gajoa. *beste zenbait eta agian, zu bezela*, eguerdiko eguzkitan egon aŕen ilunpetan bizi zan aspaldi: okerkeritik askatu, eta iruzur bidetik atera.

Oŕegatik, edaten eskatu nion, itzegiteko bide emanez: bafen osoa, bere gaitz guztiak in agertzera jafi zezan; gero nere itzen samurtasuna nabaiturik, senda zedin *bera eta berekin batean beste zenbait. eta agian zu ere bai, seme.*

Ezin zezakean gajoak asmatu Ni juduen eta samariaŕen eta munduko eŕi guztien jaun ta jabe nintzala; eta eŕez barkatu nion, auzo lufetako gizon iguin bati bezela mukeŕkeriz erantzun zidana: ea, «*nolatan Ni judu izanik, ur eske negokion samariar ari...*»

Etzekien asko, itsaso, ibai ta eŕeka guztiak nere agindu otsari erantzunik sortuak zirala, eta *ur bizien* itufi nagusi bakaŕa Ni naizela.

Oŕegatik nere izketa paketsu bezin zoŕotza aditu orduko, *ur bizi* eske neukan apalki, lengo mukeŕkeriaz lotsaturik.

Eta bein ontara ezkerro, bein buru aŕoa makurtu erazi ezkerro biotz-biotzean ikutu nuen, bere isilikako okerlagunen beŕi banuela adierazirik, eta bere bizimodu lotsagafia arpegi-arpegira emanik. Sendabide min ta gaŕatza, baño sendabide bakaŕa, berdin gabea.

—«*Jauna—ziotsan laŕiturik emakumeak—ikusten det Igarlea zerala.*»

Eta aitorkunde au egin ondoren, bere bafengo kezkaŕ agertu zizkidan: *samariaŕen eta juduen arteko eztabaidetan nor ote zebilen zintzo eta Mesias edo Kristo noiz ote zan etortzekoa.*

* * *

A seme maitea! Zenbaitxe aldiz egon ote naiz zure aldamenean, zuk gutxien uste zenuela, munduko zure adiskide, aberastasun eta atsegin itufi banakak agortu, eta ezetasun apur baten eske zeneukanean biotza!...

Zenbaitxe aldiz, zuk ezagutu ez dezun *norbaitek* bakardadeko ordu luzetan gogora ekaŕi izan ote dizkitzu zure eroriko lotsagafiaŕ, eta zure makufkeria arpegira eman!...


Zenbaitxe aldiz agertu ote dizkiotzu isilpean *norbait* dalako ofi, beste iñori aitortuko etziñizkioken kezka, laŕitasun eta gañerako zure gauzatxoak!..

Eta bai aldakizu nor dan zure ondoko lagun zintzo, onginaiez betetako adiskide, eta itunlari burubidetsu ori?

Emakume samariaŕari esan nion bezelaxe, diotsut zuri ere: *Zuk diozun Mesias edo Kristo ori*, zure bakafaldietako lagun zintzo, onginaiez betetako adiskide, eta itunlari burubidetsu ori, *Neroni naiz, izketan nagokizun auxe.* «Ego sum qui loquor tecum.»

Mokoroo'tar Iustomari
Sch. P.





Magdalena Jesus'en oñetan Farisauaren etxean






BIGAREN AGINDUA. BELA (VOTOA)

Vota mea reddam in conspectu timentium eum.

(Ps. XXI-26)

Aren bildur diranen aurrean beteko ditut nere belak.



ENGO ilabetetan erakutsi dizut k. m. zer debekatzen digun bigaren aginduak. Gaur labur nai dizut adirazi zer agintzen digun.

G. Zertara beartzen gaitu bigaren aginduak?

Jaungoikoaren izena aintzakotzat eukitzera ta Berari egindako eskeintzak eta, zin egiñaz, iñori aginduak betetzera, beartzen gaitu bigaren aginduak. (B. K. I.)

Aren izen agurgafiari zor diogun begiramenduz eta zin egiteaz itzegiñik, gaur Jaunari egiten zaizkion eskeintzaz bear dizut itzegin.

Jaungoikoari asko eskeintza ta asko erataraz egiten zaizkio, baño bigaren aginduari dagokionez voto edo Baztandafak esaten duten bezala *belaz* itzegin bear dizut.

Belā (votoa) zer da?

Belā da Jaungoikoari itz-ematen zaion gauza on, egin dezakeguna, beste aldekoa baño ohea ta agindua ba-gendu bezala gure buruak beartzen dituana. Belā ona izateko bear da:

Agintzen dan gauzaren aldetik

- 1.^a Jaungoikoari agindua. Naiz Ama-Birjiñaren edo santuen baten laguntza irixteagatik egin, Jaungoikoari egin bear zaio promesa (agintza).
- 2.^a Bete dezakegun gauza agindu bear da; pekaturik gabe egin dezakeguna.
- 3.^a Agintzen degunaren kontrakoa baño ohea izan bear da agindua.

Agintzalearen aldetik:

- 1.^a Jakiñaren gañean zer agintzen duan.
- 2.^a Nork bere gogoz edo borrontez ta aukeraz.
- 3.^a Beste iñork beartu gabe.
- 4.^a Agintzen duanak pekatuaren azpian beartzen duala jakiñik.

Belak izan ditezke:

- 1.^a *Bere eskukoak* edo *Eliz legezkoak*. Aiek dira nor berak, elizaren ordezkariak dionik gabe egiten dituanak; eta auek elizaren ordezkariak

eskuetan eliz-legez egiten dituanak. Azkeneko aukerak izan ditezke *betikoak* edo *aldi batekoak*; bizitza guziko egiñak ba-dira edo aldi bateko bakafik beartzen dutenak.

2.^a *Norberarentzakoak* eta *gauzazkoak*; aiek, nor berez berez bete beaŕak; eta gauzazkoak gauza bat beretatik eman beaŕa danean; orduan agintzalearen etxeak ere beartzen ditu dakitenean.

3.^a *Baldintzazkoak* eta *baldintza gabekoak*. Aiek dira, alako edo olako gauza gertatu ezker beartzen dutenak eta bestela ez; eta aukerak dira noiznai beartzen dutenak.

Beŕa betetzeko zaŕak aldatu edo barkatu dezazkete Obispoak eta Aita Santuak.

Beŕak ez betetzea pekatu da ta argatik ez dira egin bear konfesore on baten iritzirik gabe, gero ez damutzeko.

Intza'r Damaso An.



“¡Agur, María!” “¡Agur, Bernardo!”

EZTA Mariarentzat, Aingeruaren diosala, bere semetxoen agotik entzutea bezalakorik. Agur onek mugitzen dio biotza «Anuntziatioko» egunean bezala. Ala adierazi zigun Bernardo bere serbitzari bikain eta Santuarekin egin zuan mirari batez.

Animen alde egindako lanaz leŕ egiñik, joan zan gure Bernardo komentu batean atsegin pixko bat artzera. Etxe ontan bazan Jainkoaren Amaren iduri polit bat: Ama ɛrk, Semea besoetan zaukala baizirudin, egun guzian, aŕetik igarotzen ziran praileak, begi ezti-eztiaz begiratuaz, mesede ugariz bete nai zituala. Bernardok aŕetik igarotzen zan aldioro, «Agur Maria» esaten zion, aurpegi gozo atsegiñaz begiratzen ziola. Bein, belauniko eta beñere baño gozoago eta beroago, diosala ori esan eta esan ari zitzaŕola, «¡Agur, Bernardo!» erantzun zion Zeruko Amak.

Asma zazue albaduzue, Bernardoren biotza nola geldituko zan orduan. Nik uste dut lertzeko egondu zala. Berak esango zituan Eskrituran irakurtzen ditugun itz aukerak: «Nere anima eta gogoa urtua gelditu da zure itzaren aditzean.»

Guk ere, ordua entzuten dugun guzietan, «Agur Maria», diosala txiki au besterik ezpada ere, esan dezayogun emendik aŕera, gure Ama gozoari: Etzaigu damutuko.

A. I. M. A.

ZERTAN GERAN



AIZ bizia beññere izan dan garestiena izan, jostaketa ugari badabil baztaretan. Iduri du askok eta askok ez dutela beste gogorik. Ez da besterik aditzen, bereziki igandetan. Jainkoaren eguna jostaketako eguna egin da.

Ala da, Jainkoak nai du igandetan atsedean eta josta gaitzen beste egunetan baño geiago, bañan ez du egun ori oñtarako egiña bereziki. Zafak esaten digute lenago ere jostatzen zirela edefki igandetan, baiñan al zuten guziak meza-nagusi-bezperetan arkitzen ziralarik eta eñian bertan. Oraingoak beziñ atsegin zuten beren igandetako jostaketa, aste guziko gozoa ofela artzen baizuten beren lanari jafaitzeko.

Gaurko mutil gazteak, gure Euskal-eñian, joaten dira bai, geyen-geienak, mezatara, bañan alik labufenera; meza nagusian mutil gazte gutxi, eta bezperetan gutxiago. Zer egiten dute bada egun ofekin? Beren bizikleta gañean—nork ez du bizikleta bat gaur egunean?—badijoaz auzo efietara, zerbait jai, *festa* dan tokietara. Oso bakanak dira orain igandeak, zerbait jaitxo an edo emen gabekoak. Ostalariak alegiñak egiten dituzte ortarako, baidakite gazteria efiez bileraiziko dutela.

Entzuten degu esaten pilotak ez duela beññere orain ainbateko mentarik, saparik, indafik izan. Ori, bai eta ez. Plekari, pilotari onak badirala baztaretan, eta naski lenago baño geixago, izan diteke. Baiñan oien aldean zenbat euskaldun gazte, pilotan batere ez dakitenak, pilota tokia bestei gogotik uzten dietenak, jaien baten aitzakiz maiz beren bizikleta gaññean eskuin eta ezker dabilztanak. Orain ere pilotari edefak badirela iñoiz baño geiago, bai; bañan beññere baño geiago badira euskaldunak pilota besteentzat uzten dutenak, berak naiago baidute igande egunetan ara eta ona efitik kanpora ibili. Beti jostaketa gose, jostaketaz eziñ ase. Berdin badute dirua txautzeko, gatzatzeko.

Eta gure neskatxa apaiñak? Auek ere jostaketa maite, eta esan dezagun bereala auen jostaketarik maiteena dala beren buruak apaintzea. Eta beren buruak apaintzeko uste dute bea diotela pañegarizko moda bati jafaitu. Aueko egun batean afoz batek esaten zidana: «Zuen Euskal-efiko neskatxak Parisekoak dirudite.» Sinisten det eta ez lukete bestela nai oñetatik bururañño. Beren oñetako ertsi, estu eta dirdirak jantzirik egoteko egiñak dira, oiñez ibiltzeko baño obeki. Eta ez dituzte aanzten galtzerdi sedazkoak, oñak

ormatuak egon beaŕ badute ere neguan. Moda da eta modaz izateko eraman, sufritu, diteke ba zerbait. Soñekoak, beren papaŕ idekiarekin eta beso motz ez deusekin, itxusiak dirala, guziak aitoŕtzen dute; baiñan, moda da eta, gauza politak baño itsusiak ibiltzea obe da. Eta ezpañetako ore gofia? Eta masaletako irin txuria? Beren laŕu garbi edeŕa dan bezela agertu baño, naia-go dute zikinker i oietaz estali. Badakite ba laŕu ori itsusten eta ondatzen dutela, baiñan moda da, eta itz ori aski da ergelkeri aundienak egin-arazteko.

Nola ifi-egiten duten moda-egileak emaztekiatz! Itsusi zenbaiti atsegin egiteko, edeŕenak itsusitu nai dituzte. Eta badakigu ez dirala alpefik ari beren lan oŕetan.

Oraingo neskatxak asko irabazten dutela. ... bai eta ere, laster, asko txautzen, gastatzen. Bein baño geigotan entzun dut diru-etxetako jaun batzuengandik: lenagoko neskatxak, beren irabazi txikiarekin, oraingoak beren irabazi aundiarekin baño diru geiago auferatzen zutela. Sinesten det; ez ziran ain ergelak; ez zuten jostatzea eta apaintzea ain maite. Beren buruari gaztetasunean kendua, ondoko egunetan arkitzen zuten. Eta oraingoak?

Eskualdunaren Almanaka'tik

EGUZKIA

Bere lana azkendu ondorean
Eguzkia etzan da pakean;
«Aguŕ, aguŕ, biaŕ atoz beŕiz»
Diot e aŕfak oyu gaŕaxiz.

Baso ta soro, mendi ta ibaŕak
Berotu ditu berak ta argitu,
Aloŕetan aleak zoritu,
Onez ase luŕeko baztaŕak.

Su-gaŕ goŕizko edergaŕiz du
Orain gure ezkildofea apaindu,
Ta odei ertz-goŕien atzean
Pulunpatzen da gau isilean.


Zuek ere, aŕf maiteak,
Eguzkiaren antzera
Zoazte lo egitera;
Bestela biaŕ goizean
Eguzkiak, irtetean,
Beaŕko zaituzte indaŕez
Zuen oetik atera.

(EMMY Giehl)





DAMUA



Lekunberitar M. Ab. bildua

Elduayen'dar T. A.



Zu - re ofetan aus - pez naigabez urtu - a Nau - kazu Jesus



o - na guztiz damutu - a Zu beti nere bi - la za - biltz leyatu



a ni zuregandik i - ges e - ne zoratu - a





II. Dei samurez zagozkit - zuregana deitzen;
Nere biotz osoa - zuretzat eskatzen:
Nik beñiz, Jesus ona, - itza eman aŕen
Ainbeste bider dizut - biotza ukatzen.

III. Gurutz batean zakust - maitasunaz ilik;
Esku ta oñak iltze - gogorez josirik;
Musu eder zuria - odolez bezturik;
Begi zabal gozoak - negarez bustirik.

IV. Barka zadazu Jauna - nere eskergabea;
Oroi zaitzez zerala - erukiz beteaz:
Ona emen naukazu - ume ondatzalea
Barkatu, ai, barkatu - nere Jaun maitea.

Yur'e'tar I. A.

AURÁ TA BERE AINGERUA

Umeak nai du lotara joan,
Bere Aingeruak, oe ondoan,
Eskua pafiriz luzatu ta
Diotza: «Ba al zoaz lo-efira?»

«Bai, lotara noa, aufak darantzu,
Nere begiak zuk ertsi itzatzu;
Zaude or nere zai erne zintzo,
Ta nik maite izango zaitut oso.»

Orduan Aingeruak gozaro
Aurtxo kutuna oera jaso
Ta arduraz estaliaz diotso
Musu bat emanez: «Egin lo ondo.»

(Otto Denk)



BASEÑITAR ANTONIO DEUN ZALEA



ufeko batean, emakume euskaldun basefi-
taf batekin izketan ari nintzala, nola ezta-
kidalarik, Paduako Antonio Deunaz itzegi-
ten asi giñan; eta galde erantzun batzuen
ondoren ara gutxi gora-bera zer esan zidan.

Ileko eskuera kutsia

Bai, nik San Antoniorekin konpantza
aundia det; jateko ta gure buruak estaltze-
ko aiña justu samarean ateratzen degu, baña
ilean bi pezetako bat San Antonioren argi-
tan gastatzeak ez dit miñik ematen; San Antoniok edefki ordaintzen digu, bai.

San Antonioren eskuetan

Etxeko gora-bera guztiak San Antonioren eskuetan ipiñi oi ditut, eta ez
det uste ofekin batere galtzen degunik. Bai, San Antoniori mesede asko zof
dionkagu.

Etxeko ganaduetan

Lenago etxeko ganadutan oso zori txafa izan oi gendun: eta eskean bil-
dutako diruarekin ateratzea obeagoa zala ta, auzoan meza dirua bildu ta Ur-
kiolara jun giñen eta eskeko mezaz gañera beste meza bat atera-erazi gen-
dun; eta afezkero suerte edefa izan degu.

Bein batean

Txefi koskor bat genduen lenengo aldiz ume egiteko eta iñolaz ere eziñ
eginiñ, gure San Antoniori argi bat piztu giñion eta berealaxe bost ume edef
batere nekerik gabe egin zitun.

Promesa eginda

Aufeko ilean ere, promesa eginda, Urkiolan izan giñen seme bat eta
ni. San Antoniori promesa egin nion, soldauskotik libre ateratzen ezpazan
ere, soldauskoako denbora, Melilara gabe, ondo pasatzeko mesedea egiten
bazigun biok Urkiolara jun eta meza bat atera ta Jauna artuko genduela ta
San Antoniok eskatu giñiona egin zigun da, goizeko bostetan etxetik atera
ta amaika t'erdik aldean Urkiolan Jauna artu gendun.

—Esan dizkidatzun gauza oietatik zerbait ZERUKO ARGIAN jartzea nai al
dezu?—galdetu nion.

—Zertarako jafi beaf dezu?

—ZERUKO ARGIA irakurtzen duten euskaldunak jakin dezaten eta ofela
Antonio Deunarekiko debozioa geiago zabaldu dedin.

—Gure San Antoniokiko debozioa zabaltzeko bada nai dezun guztia
jafi dezakezu»...

Otar A. O. M. C.



ABEREED NEGUTEA



ASOAN zebilen Zezen bat bildots batekin arkitu zan.

—Norat ari aiz, Bildots?—esan zion.

—Gerizu baten biñan nabilek datofen neguan otzak egon ez nadin—erantzun zion Bildotsak.

—Biña dezagun orduan elkarëkin.

Auñera zijoazen biak eta urde batekin topo egin zuten.

—Adi zak, Urde, norat oa? galdetu zuan zezenak.

—Gerizu baten biñara negu gogofeko --yardetsi zion Urdeak.

—Ator orduan gurekin.

Iruak jafaitu zuten eta andik gutxira urbildu zitzayen ate bat.

—Norat oa, Ate?—esan zion zezenak.

—Neguko estalpe baten biñara, yardetsi zuan Ateak.

—Orduan ator gurekin.

Eta elkarturik aintzina zijoazen eta olar bat arkitu zuten.

—Non abiñ, Olar?—esan zion Zezenak

—Neguko estalpe baten biñan—erantzun zion Olafak.

—Guziak ofen biña gabiltzak. Ator i ere gurekin—yardetsi zion zezenak.

Eta bostak alkartu-ta ere, etzekiten zer egin eta zioten:

—Zer eginen diagu? Negua asi dek ta lenbiziko otzak somatzen ditiagu.

Non afapatuko diagu estalpe bat guzientzat?

Orduan esan zien Zezenak.

—Nere iritzia au dek; etxol edo txabol bat egin bear diagula, bertzenaz, ziur lenengo gau otzean ormaturik geldituko gaitukela. Orodenak lanari lotzen bagaituk, laster egiña ikusiko diagu.

Baña Bildotsak zion:

—Nik estalki bero edera badiat. Begira nere ile zamaña! Etxol beafik eztiat negua igarotzeko.

Urdeak befiz:

Otzaren bildufik ez diat: luñez estaliko nauk eta estalpe beafik ez diat izango.

Ateak zion:

Eta ni izai (1) baten adafetan jafiko nauk; azpian ezañiko diat egal bat et bestea befiz estalkitako ederki etofiko zaidak eta eztiat otzik izanen neguan, ta ofegatik eztiat lanean ari izan beafik etxol egiten.

Oñafak esan zien:

—Otzetik begiratzeko nik ere ez ote diat bada egalik? Nonnai igaro zezakeat negua.

Zezenak, etzutela lagundigo eta bakafik ari bearko zuela lanean ikusirik, esan zien:

—Nai dezuen bezela; nik otzetako eginen diat txabolatxo bero-bero bat; bañan bakafik egiten diaten ezker, ez neregana laguntza eske etofi.

Eta pensatu edo oldoztu bezela egin zuan etxol bat eta artan bizi-tzen zan.

(Azkena urangoan)

Aleman'dar Peño

(1) Izai=abeto.

ETXEA

Aziera ¿Noiz?



GUSTIN deun (Santu) ta jakintsu aundiak au dio: Nexka bekaizti edo inbidiosa bat ikusi nuan: etzekin oraindik itz egiten ta arpegi ori ta aserezko begiz begirutzen zion berak artzen zuan bular beretik edaten zuan beste neska bateri.

Luñean belar txarñak sortzen diran bezalaxe, auñetan jayotzetik datozen griñak belaxe agertzen asten dira.

Baño aur txiki-txikietan griña txarñak ez dute nazka aundirik ematen; nunbait berez maitagari diralako edo.

Oregatik guraso zozo batzuk zazpi urteak arte edo, gogoak ematen dien guztia egiten utzi oi die.

Gezurak esaten dituala... Argia dator gure mutiñ. Mayan nai duana jaten eta nasten utzi.

Aitak umetxoa zuzenduazi nai ba'du... «¡Gizon auek ez dute biotzik! ¡Utzazu pakean gizona! Aundiagoa egiten danean orduan pixka bat ezitzen asiko gera» Bitartean...

Ta, bitartean, auñak zazpi edo zortzi urte bete ditu; amak umea azitzeari, ezitzeari ekiten dio ta «autxek dituk lanak! ¡Gaurko umeak bai gaiztoak dirala» ¿Noiz zuzentzen al da erezago zugatz edo arbola-landarea, urte bat duanean edo sei edo zazpi urtekoa danean? Urte batean.

Zure ume edera landare bat da.

Asi zaite eziñzen urte bat duala edo obe lenago ta sei urte betetzen di-tuanean aingerutxo orek bizia arinduko dizu, baño, bestela, bere ezigabeko griña txarekin bizia samintzen asiko zaizu.

Jakintsuak diotenez, txiki-txikitik asi bear du azierak eta jakintsu batek dionez umeak ondo asi ta ezitzeko seaskatik asi ta sei urtetaraño garaia (denbora) da egokiena.

* * *

Mendiluze'tar Lontxo'ri:

Adixkide maitea: ez geiegi estutu zure burua, lainkoak lagunduko dizu zure txikitxoia ondo azteko.

Diozunez, *lokuzaleegia dalako* berandu juaten da beti bazkaltzera.

Begira, berandu juaten zaizuen aldiro, kendu zaiozute joku denbora zerbait eta, bear bada utzi zazute egun osoz ezer ere jokatu gabe.

Agindu nai aña zure adixkide oni.

Osinburu

Auren Txokoa

Josetxo gaueko bere otoitz edo orazioa egiten ari da.

—Guazeti, esaten dio amatxok, etzateko ordua da ta mugitu zaite pixka bat.

—Amatxo, Jaungoiko gure Jauna asko maite dedalako, amonak erakutsi dizkidan ipui politak Jaungoikoari kontatzen dizkiot.

* * *

Burdinbideko gelditoki edo estazioko jafi-lekuan.

—Mutil, ekafi laxter araultz-talo edo tortila bat, presa daukat eta.

—Jauna, eztaukagu araultzik.

—Ezta ajolik, egizu koipearekin.

Sukaldea

Zopa irin kixkortuaz.—Kixkortuazi zazu koipean kutxara bat iriñ, noizean bein zerbait nasiaz; gero poliki poliki urtu zazu ur beroaz bizi-bizi nasiaz: erantsi ura ta gatza.

Gero au guzia bota poliki antolatuaz plateran egongo dan ogiaren gañera: au egin baño len ogiaren gañean krema ipiñi bear da. Iriñari erantsi, nai bada, belar egokiak edo tipula txetuak.

Osinburu



Emakumea ta Irakurgaia

24 - Iltzeko zegoanaren biraoak



IK al dedan añeko siñismenez ta ausardiz betetako izketa irakufgaien eginkizunaz ibili zuan andreño edo señorita bati ofialde auek bukatzeko itz egiten utziko diot.

«Nere efialdeko uri (ziudade) batean, 1911'g. urteko Batzafean zion, beste munduko ezkutapen edo misterio-etazko ajolakabe ikaragafian iltzen ari zan siñismen gabeko bat.

Bere oe buruan bi egunez egon zan apaiz bati bein ta befiz esan zion: Gizona zeran aldetik aintzat artzen zaitut; apaiza zeran aldetik gofotatzen zaitut. Eztet ezer siñisten, ez det ezer itxoiten, zuen siñisgaietaz (fedeko egietaz) par egiten det.

Apaiza ixilik ta otoitzean (orazioan) geratzen zan, ta doakabe ura, eriotz-aufeko asnas-karkafadaz menderatu-ta bere mi biraolaria ixilik edukitzera bearturik arkitu zanean, apaizak gaixoaren gañean makurtuaz auxe esan zion: Orain arte itz egin al izan dezun bitartean, Jaungoikoa mada-rikatu dezu; orain ezin bestez ixilik zaudenean, Jainko onak nere aoz be-deinkatzen zaitu.

Animaz begiraldi bat emaiouzu Jesus iltzen ari zanean bere gañean eduki zuan Gurutzeari ta azken-gabeko bizia emango dizu.»

Gero, iltzeko zegoanak par egin ta ukatu zuan apaiz-aginteaz, indahez esan zuen: «Nik azkesten (asolbitzen) zaitut Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.»

«A! zion gertaeraren befi ematen zuen Devuns andreñoak, eun urte bi-ziko banintz ere, ez nuke pekatariak zeruratzeko azken orduraño jafaitzen dien Jaungoikoaren maitetasunaren irudia dan gertaera au aztuko.»

Gure gizartea gaixo dago ta eriotza ekafi dezaken gaixotasunaz. Itzik ba'du Jaungoikoa madarikatu ta Eliza jazaftzeko (persegitzeko) da. Gurutzearen erakutsi pizkorgafiak eman gabe iltzen utzi bear al degu?

Jaunak efiak sendagafiak egin ditu ta aren itzak entzun nai ez dituen efiari, egin dezagun irakufgai onen bidez iritxi datzakizkiotela.

Emen daukate andreak eta neskatzak ta Andre Katolikoen Alkaftasunak lan-toki zabala.

Prantzi'ko teologo bikain Ramière jaunak zion: «Apaiz-eginkizuna ez ezik ezta au bezin lan bikañik.

O andre kristauok, ona lan-zelai zabal, dizditsu, gizen, zuentzat irabaziz (merituz) betetakoa.

Eleizak afenka eskatzen dizute, zion Fribourg-en-Brisgau'ko Goi-Gotzai edo Artzobispoak, irakurgai onai eusteko egiñalak egin ditzazutela.

Elizak animak zeruratzeko egiten dituan lanak, irakurgai loi ta siñismenaren etsai diranai esi bat ipintzen ez bazaie, utsak izango diralako.»

Cultrera-Arbelaitz.



Esan bai, baño egin?

Gauza polita Viena'n *sozialistakin* gertatzen dana. Erikoetxean sartuarte, kontribuzio aundiegiak jartzen zirala ta, ez dira ixildu. Eriko-etxean sartu dira, baño kontribuzioak ez dira ofegatik gutxitu. Austria'n ez omen zaizkio inoiz jende langileari onelako kontribuzioak jafi. Praileai ere etzaie barkatu. Domingo deunaren semeai, Viena'n duten etxeagatik, esan zaie ilero amar miloi koroï ordaindu bear dituztela: au nai ez badute, konbentuan utsik dauzkaten gelak eriko-etxeak kenduko omen dizkie.

Ori bera gertatu zaie Prantziskotafai. Ordaindu ez dezaketela, esan bear izan zuten; ara zer erantzun zitzaïen orduan: Egin ezazute bada zuen etxea Viena'tik ufuti. Au guztia ikusita, katolikoak asafetu dira; baño asafetzea ez da naikoa, gero auteskunde edo eleziotan *sozialistak* erikoetxetik kanpora botatzen ezpadiutze.

Langile beñiak

Orain bi ilabete, Washigton uritik lau neskatx atera dira, Indiara joateko. Ez dira monjak, askok usteko duten bezela, ta animak zeruratzer a dijoaz.

Gurutze Santuaren izena dun Elkartasunak biali ditu ta berak emango die India'ra joan ta an egoteko bear duten guzia. Lauak etxe aberatsetakoak dira ta gaxoak zaintzen urte askotan ikasi dutenak; India'n bost urte egongo dira gaxoak zaintzen ta gañera zeruko bidea erakusten ta bost urte oyetan egingo duten lanagatik ez dute ezertxo artuko. Langile beñiak dira ba mixiotarako ta oraindaño ikusi ez diranak. Amerika'ko katolikoak neskatx kementsu oyei begira daude: ezta añitzekoa; lenengo aldia da lau neskatx misiotara gisa ontan dijoazela ta oyek erakutsiko die nolako lana egin dezaketen beren antzeko neskatxak.

Amerika'n nola begiratzen dien aurfai

Orain urte gutxi asi dira katolikoak ume gaxoen alde lan edefa egiten. Udara etortzen danean, eñietatik atera ta mendi aldera eramaten dituzte. New York'o gotefkian (diócesis) ortarako 12 uda-etxe aundi ta edefak egin dituzte ta joan dan udan 6.000 ume egon dira etxe oyetan uda ederki igarotzen, ezer ordaindu gabe.

Praile ta monjak artu dute bere gañi lan au. Onelako etxeak egin ta ofenbeste ume zaintzeko, jakiña da diru asko bear dala, baño ez dira katolikoak ikaratzen, ari dira dirua andik ta emendik ematen, umeak baso ta ibai ondoko bi-

zitza lasaiaz indafak artu ditzaten. New York'en bezela beste tokietan ere asi dira lan ontan.

Ostikolari bikañak; baño katoliko bikañagoak

Latefi Elkartuetan (Estados Unidos) oso ezagutuak dira Indiana'ko Ikastetxe Nagusiko ostikolari trebeak. Ez omen zaie nola nai irabazten. Aritzekoak dira, diotenez, jolas zelaian, baño askoz arifafigoak beren oitura eder ta sinismen biziaz. *Catholic News* dionez amaika ostikolari oyek, naiz an da emen ibili, amar urte oyetan ez dute eguneroko meza ta Jaunartzea galdu. Azkenengo aldian New York'era etofi ziranian, 50 mila ikusleen afean jokatzera, Indiana'ko ostikolariak, bederatzi t'erditan eldu ziran uri ontara ta bereala eguneroko meza entzun ta Jauna artzera joan ziran.

Zer diote igandetan ordu erdiko meza ere entzuteko betarik ez duten gazteak?

Nun ta Prusia'n

Flatow efiko diakono protestante bat jende askori itzegiten ari zalarik, esan zien: Guk protestanteak ez degu katolikoak bezela gizonen pekatuakin irabazten. Ufengoan onelako gezufik esan etzezan, katolikoak epaile edo juezaren auffera eraman zuten. Epaileak katolikoan alde erabaki zuen. Protestantea etzan iritzi berdiñekoa noski ta goyeneko epailearengana jo zuen. Onek lenengoak bezela erabaki zuen, esanaz itz ayekin katolikoan aitortze, meza ta induljentzien kontra itzegin zuela.

Au Prusia'n gertatua da.

Zergatik katoliko egin zan?

Ara zer dion protestante batek: Sendagileak urtero egiten degu gure batzaia; aurtan katoliko gazte batekin joan nitzan. Larunbata afatsean apari ondoan, ufengo goizean zortzitako bultzia (iren) artzea erabaki gendun biok. Gauerdia zan etxeratu giñanean. Etzan baño lenago, atezaiari zazpitan esnatzeko esan nion. Nere lagun katolikoak arituta utzi ninduen, bosta t'erditan esnatzeko ziola aditu nionean. Seitako meza entzun nai omen zuan. Goizegi zala ta asafe egin nion. Berak par egin zidan, itzik esan gabe. Goizean mezarako jeiki zanean, katolikoan erlijioa ikasteko asmoa artu nuen. Nere lagun zintzo ura goiz artan mezara jeiki ezpalitz, ez giñan ni ta nere sendia orain katolikoak izango. Bai kaltea, katoliko epelak egiten dutena.

(*Catholic News*)

Turkia ta Aita Santua

Praile italiar ta prantzetafak dauzkaten ikastetxeak Turkian gobernuak itxi nai izan ditu.

Aita Santuaren Ordezkoak azkenean iritxi du gobernuagandik ikastetxe oyek ez itxitzea. Bi motako ikastetxe izango dituzte emendik afean; bat katolikoentzat bakafik, bestea nai duten guzientzat. Katoliko utsak dauden ikastetxean, gurutzea ta beste irudiak jafi ditzakete; besteetan ez; bakar-bakafik katolikoak dotriña ikasteko bilduko diran gelaren atean gurutze bat jafi dezakete. Au irixtea zaila zan, baño azkenean, Aita Santuaren Ordezkoari eskefak, iritxi da.

